

BATERIAK KUDEATZEKO SISTEMAK (BMS): ERREKERIMENDUAK, SOX-AREN ESTIMAZIOA, OREKATZEA ETA BATERIEN KONTROLA.

GAIA	Elektronika eta energia
ECTS/ORDUAK	8 ORDU
EGUTEGIA	2024/01/01 - 2025/11/03
TOKIA	Aukeran
HIZKUNTZA	Gaztelania
MODALITATEA	Aurrez aurrekoa edo Online

Informazio gehiago
eta izen-ematea

HELBURUAK

Ikastaro honetan, litio-ioizko bateriei lotutako Bateriak Kudeatzeko Sistema (BMS) izango da ardatz. Bi bloketan egituratzen da: lehenak BMSren hardwarea eta horrek izan behar dituen funtsezko funtzionalitateak lantzen ditu; bigarrenak, berriz, BMSn bertan ezarritako softwarea eta egoera-algoritmoak.

Ikastaroaren helburua da litio-ioizko baterietarako BMS baten HW eta SWari buruzko ezagutza orokorra barneratzea.

NORI ZUZENDUA

Ikastaro hau ingeniari elektriko eta elektronikoei, bateriak kudeatzeko sistemen (BMS) garatzaileei eta energia metatzearen arloko profesionalen zuzenduta dago. Ion-litiozko bateriekin lan egiten duten automatizazio-teknikari eta espezialistentzat ere egokia da.

Automozio-enpresek, bateria-fabrikatzaileek eta energia berriztagarriko konpainiek ikastaro hau bereziki interesgarri izango dute langileak BMSen diseinuan eta optimizazioan trebatzeko.

PROGRAMA

Programa bi bloketan egituratuta dago:

- 1. multzoa: BMSren hardwarea. (4 ordu)
 - BMS baten HWaren funtzionalitate nagusiak.

- BMS esklabo baten analisia: gelaxken orekatze-motak. Zirkuitu integratu komertziala duen adibidea.
 - BMSko master baten HWare azterketa.
-
- 2. multzoa: BMSren softwarea. (4 ordu)
 - BMS baten SWaren funtzionalitate nagusiak.
 - Karga-egoeraren zenbatespena.
 - Osasun-egoeraren zenbatespena.
 - Potentzia-egoeraren zenbatespena.

IRAKASLEAK

Lopetegui Tapia, Iker

<http://mukom.mondragon.edu:8080/Plone/eu/ikastaroa/bateriak-kudeatzeko-sistemak-bms-errekerimenduak-sox-aren-estimazioa-orekatzea-eta-baterien-kontrola>